

---

**Serie I:**  
**PLANES, COMUNICACIONES Y PROGRAMAS**

---

## **Normas de ordenación del debate sobre el estado de la Comunidad Foral de 2018**

En sesión celebrada el día 10 de septiembre de 2018, la Mesa del Parlamento de Navarra, previo acuerdo de la Junta de Portavoces, adoptó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

**1.º** Aprobar las normas de ordenación del debate de política general sobre el estado de la Comunidad, que se insertan a continuación:

### **“Normas de ordenación del debate sobre el estado de la Comunidad Foral de 2018**

**Días 18 y 19 de octubre**

#### **Día 18**

El debate se efectuará de conformidad con lo previsto en el artículo 201 del Reglamento, iniciándose con la exposición de la Presidenta del Gobierno.

Concluida dicha exposición, la sesión se suspenderá durante media hora. Reanudada la misma, intervendrán los y las portavoces de los Grupos Parlamentarios y de las Agrupaciones de Parlamentarios y Parlamentarias Forales que lo soliciten, por un tiempo máximo de 30 minutos.

El orden de intervención será de mayor a menor, interviniendo las y los portavoces de los Grupos Parlamentarios y de las Agrupaciones de Parlamentarios y Parlamentarias Forales que apoyan al Gobierno en último lugar, en el mismo orden.

Finalizadas las intervenciones, la Presidenta del Gobierno contestará a las mismas. A continuación, se abrirá un turno de réplica, por un tiempo máximo de diez minutos para cada uno de los y las portavoces de los Grupos Parlamentarios y Agrupaciones de Parlamentarios y Parlamentarias

Forales que lo soliciten, por el mismo orden de su intervención inicial.

Finalmente, terminará el debate con la intervención de la Presidenta.

Concluido el debate, se abrirá un plazo de quince minutos para la presentación ante la Mesa de propuestas de resolución por los Grupos Parlamentarios y por las Agrupaciones de Parlamentarios y Parlamentarias Forales. Cada Grupo o Agrupación podrá presentar un máximo de cinco propuestas. Dichas propuestas, además, se remitirán por sus suscribientes a la cuenta de correo electrónico que se facilitará en el momento oportuno. La Mesa admitirá las propuestas que sean congruentes con la materia objeto de debate y se remitirán a las y los portavoces de los diversos Grupos y Agrupaciones para su examen.

#### **Día 19**

Las propuestas admitidas por la Mesa se debatirán en el Pleno a partir de las 9 horas.

El orden del debate de las propuestas de resolución será el mismo que el de las intervenciones del día anterior.

Cada Grupo Parlamentario y Agrupación de Parlamentarios y Parlamentarias Forales defenderá sus propuestas de forma conjunta durante un plazo máximo de diez minutos. Luego habrá un turno de intervenciones, a favor o en contra, de los Grupos y Agrupaciones en el mismo orden del debate y otro de réplica, ambos de cinco minutos.

Después del debate de las propuestas de cada Grupo y Agrupación, se votarán separadamente las propuestas de resolución”.

**2.º** Publicar este Acuerdo en el Boletín Oficial del Parlamento de Navarra.

Pamplona, 10 de septiembre de 2018

La Presidenta: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**I saila:**  
**PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK**

---

## **Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2018ko eztabaida antolatzeko arauak.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 10ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Ondoko arauak onestea, Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida antolatzekoak.

### **“Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2018ko eztabaidatzeko arauak**

**Urriaren 18an eta 19an**

#### **Urriak 18**

Eztabaida eginen da Erregelamenduko 201. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren mintzaldiarekin hasiko da.

Azalpen hori amaiturik, bilkura ordu erdiz etenen da. Bilkura berriz hasten denean, mintzatuko dira mintzaldi-eskaera egiten duten talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkarten eledunak, 30 minutuz gehienez ere.

Mintzaldien hurrenkera parlamentari gehien dituen taldetik gutxien dituenakoa izanen da. Gobernu babesten duten talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkarten eledunak azkenik mintzatuko dira, hurrenkera berean.

Mintzaldiak amaituta, Gobernuko Lehendakariak erantzun eginen die. Ondoren, ihardespen-txanda bat irekiko da, hamar minutukoa gehienez, horretarako eskaera egiten duen talde parlamentarioen edo foru parlamentarien elkarten eledun bakoitzarentzat, hasierako mintzaldien hurrenkera berean.

Azkenik, eztabaida Lehendakariaren mintzaldiarekin bukatuko da.

Eztabaida bukatzen denean, hamabost minutuko epea irekiko da, talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteek Mahaiari erabaki proposamenak aurkeztu ahal izateko. Talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak gehienez ere bost proposamen aurkeztu ahalko ditu. Halaber, sinatzaileek proposamen horiek bidali beharko dituzte egoki den unean adieraziko zaien posta elektronikoko kontu batera. Mahaiak eztabaidagaiarekin koherente diren proposamenak onartuko ditu, eta talde parlamentarioen zein foru parlamentarien elkarten eledunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten.

#### **Urriak 19**

Mahaiak onaturiko proposamenak 09:00etatik aitzina eztabaidatuko dira Osoko Bilkuran.

Erabaki proposamenak eztabaidatuko dira aurreko eguneko mintzaldien hurrenkera berean.

Talde parlamentario eta foru parlamentarien elkarte bakoitzak bere proposamenak batera defendatuko ditu, hamar minutuz gehienez. Ondoren, txanda bat irekiko da talde parlamentarioak eta foru parlamentarien elkarteak, alde nahiz kontra, mintzatzeko, eztabaidaren hurrenkera berean, eta ihardespen-txanda bat ere. Bi txanda horiek bost minutukoak izanen dira.

Talde parlamentario eta foru parlamentarien elkarte bakoitzaren proposamenak eztabaidatu ondoren, banan-banan bozkatuko dira erabaki proposamenak”.

2. Erabaki hau jakinaraztea talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkarten eledunei, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza